

Euskaraz egiteagatik zigortua

Nork pentsa zezakean, gaur egungo Euskal Herrian, euskaraz egiteagatik inork zigorra jaso zezakeenik? Ba, hala gertatu da.

Urtarrilaren 20ko *El Diario Vasco* egunerokoak 12. orrialdean zekarrenez, Gernika A eta Balmasedako futbol ekipoek jokatu zuten partidu batean, Jessica Martínez Pérez errefereak Aritz Zearrari txartel oria erakutsi omen zion, esanaz: "por dirigirse a mí hablando en euskera habiéndole advertido previamente que no lo hiciera", agirian hitzez-hitz jarri zuenez.

Hori dela eta, Gernikako ekipoaren zuzendaritzak kexa aurkeztu omen dio Bizkaiko Futbol Federakuntzaren Komiteari, gertatutakoaren aurka azalduz, zeren euskara ere hizkuntz ofiziala den ezker.

Gertakari hori zergatik ez dute zabaldu Madrileko egunkariak AEKren erredazioan baiketazko erredazio hura edo gazteleraz egitearren haurrak morrala harriz beterik zigortu zituztenei buruz egin zuten bezala? Eta zergatik ez Espainiako Radio Nacional-en bederatziretatik hamarretara Carlos Herrera jaunaren zuzendaritzapean egiten diren elkarrizketetan?

Nere galdera da: Zergatik salatzen da ustez gazteleraren kalteetan doana eta aldi berean isildu euskareren aurkakoa? Bereizketa horren zergatia jakin nahi nuke, dioten guziak demokratik baldin badira. Bestela, frankismo kutsua argi nabari da.

J. San Martin